



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako

Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

**IRAKURKETAREN ONURAK ETA IRAKURZALETASUNA
SUSTATZEKO JARDUERA ERAGINKORRAK**

Egilea: Maialen Pastor Bermejo

Zuzendaria: Maite Serna Martínez

Leioan, 2014ko ekainaren 24an

© 2014, Maialen Pastor

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala	5
2. Irakurzaletasuna sustatzeko eraginkorrak diren ekintzak	13
3. Metodologia eta lanaren garapena.....	20
4. Emaitzak.....	21
5. Ondorioak.....	25
6. Erreferentzia bibliografikoak	26

ERANSKINAK

1. eranskina. “Bularretik Mintzora” proiektuaren bilakaera.....	29
2. eranskina. “Bularretik Mintzora”proiektuaren inkestak.....	31
3. eranskina. “Motxila Ibiltaria”-ri buruzko ebaluzioa.....	34
4. eranskina. “Motxila Ibiltaria”-ri buruzko balorazioak.....	38
5. eranskina. “Solosaldiri dialogiko”-etako balorazioak.....	39
6. eranskina. “Amama ipuinkontalariak” proiektuaren bilakaera.....	41

IRAKURKETAREN ONURAK ETA IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO JARDUERA ERAGINKORRAK

Maialen Pastor Bermejo

UPV/EHU

Laburpena. Lan honek irakurzaletasunak eskola haurrari eskaintzen dizkion onurak zeintzuk diren zehazten du, eta azken urteotan eskoletan irakurzaletasuna sustatzeko gauzatu izan diren jarduera eraginkorrenetariko batzuk aurkezten ditu. Erabili izan den metodologia bilaketa bibliografiko sakon batean oinarrituta dago, hemen aipatzen den ekintza eraginkor bakoitzak izandako emaitzak kualitatiboki nahiz kuantitatiboki frogatuta daudelarik. Lanak hainbat muga dauzka, oso zaila delako egin diren ekintzen jarraipen zifrak lortzea; horregatik, eraginkorrek diren beste hainbat ekintza egongo dira hemen aipatzen ez direnak datu faltagatik. Hala ere, ikerketa interesgarria da irakurzaletasunak dakartzan onurak frogatzen dituzten adituen testigantzak biltzen dituelako eta emaitza onak lortu dituzten ekintzak soilik aurkezten dituelako.

Irakurzaletasuna, irakurtzearen onurak, ekintza eraginkorrek, estatistikak

Resumen. Este trabajo determina los beneficios que la lectura aporta al/a la niño/a en edad escolar, y presenta algunas de las actividades más eficaces que se han llevado a cabo en las escuelas en los últimos años para promover la lectura. La metodología utilizada se basa en una profunda búsqueda bibliográfica, que demuestra con resultados tanto cualitativos como cuantitativos la eficacia de cada una de las actividades mencionadas. El trabajo tiene algunas limitaciones, ya que es muy difícil encontrar cifras de la continuidad de las actividades; por tanto, habrá otras actividades eficaces que aquí no se nombran por falta de datos. A pesar de todo, es una investigación interesante porque recopila testimonios de expertos que demuestran los beneficios que aporta la lectura y presenta solamente aquellas actividades que han dado buenos resultados.

Afición a la lectura, beneficios de la lectura, actividades eficaces, estadísticas

Abstract. This work establishes the benefits that reading brings to children in school age, and presents some of the most effective activities carried out at schools in the last few years to promote reading. The methodology used is based in a deep bibliographic search, with qualitative and quantitative results of the success of each activity mentioned. The work has some limitations, since it is very difficult to find the continuity of the activities; therefore, there will be some other effective activities not named here because of lack of data. Nevertheless, it is an interesting research because it demonstrates with experts witnesses the benefits that reading contributes and presents only those activities that have been successful.

Reading taste, benefits of reading, effective activities, statistics

Sarrera

Betidanik entzun izan dugu irakurtzea oso ona dela: etxean, eskolan, komunikabideetan ... baina sarritan ez dakigu benetan baieztapen horren zergatia. Horregatik, eta jendea irakurtzearen garrantziaz kontzientziatzeko helburuarekin, irakurzaletasunak eskola haurrari ekar diezazkiokeen onurak zeintzuk diren zehaztea erabaki dugu lan honen bitartez. Horretarako, soziologo, psikologo, idazle, irakasle eta aditu desberdinen ikerketak eta esanak kontuan hartu ditugu, irakurzaletasunaren abantailak zeintzuk diren aukezteko eta justifikatu ahal izateko.

Era berean, asko izan dira liburutegiek, eskolek, udalek ... irakurzaletasuna sustatzeko egin dituzten ekintza eta kanpainak baina, zoritxarrez, irakurtzea jende askoren irakasgai gainditugabea izaten jarraitzen du. Porrot horren zergatiak asko izan daitezke, denbora falta, teknologia berrien gehiegizko erabilpena, irakurmena lantzeko eta sustatzeko erabiltzen diren teknikak zaharkituta geratu izana eta abar. Edonola ere, datuak hor daude eta nahiko kezagarriak dira.

Hori dela eta, interesgarria iruditu zitzaigun azkeneko urteetan eraginkorrak suertatzen ari diren jardueren ikerketa bat egitea eta bakarrik emaitza onak lortu dituztela estatistikoki frogatuta dauden horiek aurkeztea. Modu horretan, gaur egun Euskal Herri mailan, Espainiar Estatu mailan eta Nazioarte mailan arrakasta izaten ari diren ekintza batzuk ezagutaraztea dugu helburu. Batetik, etekin handirik lortzen ari ez diren pertsonen beste aukera batzuk daudela erakusteko, eta bestetik, jendea horrelako ekintzetan parte hartzera bultzatzeko; hasieran, beharbada, zaila den arren, estatistikek erakusten duten moduan, azkenean ahaleginek ordainsaria dakartelako.

Hemen aurkezten dugun lan hau, ikerketa bibliografiko sakon batean oinarriturik dago eta hiru atal nagusitan antolaturik dago. Lehenengo atalak, irakurmenak eskola haurrari ekar diezazkiokeen onurak zehazten ditu; psikologikoki, kognitiboki, sozialki, akademikoki, linguistikoki eta abar. Bigarren atalak, Euskal Herri mailan, Espainiar Estatu mailan eta Nazioarte mailan gaur egun irakurzaletasuna sustatzeko burutzen ari diren eta eraginkorrak direla frogatuta dauden jardueretarikoa batzuk aurkezten ditu. Hirugarren atalak, jarduera horien emaitza kuantifikatuak

aurkezten ditu, bai kualitatiboki baita kuantitatiboki ere. Eranskinetan ere, jardueri buruzko datu estatistikoak, jarduerak izandako hedapena, grafikoak eta balorazioak aurki daitezke.

Laburbilduz, lan honen xede nagusiak honakoak dira: irakurtzeak eskola haurrari ekar diezazkiokeen onurak zeintzuk diren zehaztea; Euskal Herri mailan, Espainar Estatu mailan eta Nazioarte mailan arrakasta izaten ari direla frogatuta dauden ekintzak ezagutzea eta ez bakarrik Haur Hezkuntzan baizik eta Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere erabil daitezkeen ekintza batzuk ezagutzea.

Jarraian, lehenengo atalari emango diogu bidea, irakurmenak eskola haurrari ekar diezazkiokeen onurak zehazten dituen atalari, alegia.

1.- Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

Irakurmenak idazmenarekin batera eboluzio handia jasan du sortu zen une beretik. Harri batean grabaturik zeuden hieroglifikoak irakurtzetik, pergaminoetatik irakurtzera edo irakurketa digitalera iritsi arte, irakurketa gizateriaren eboluzio historikoaren parean joan da beti. Idazmenaren asmakuntzak historiaurrearen eta historiaren arteko banaketa eragin bazuen, irakurmenak aro bakoitzean jazo ziren gertakariak dekodifikatzeko balio izan du.

Gogoz irakurtzen hasi zen lehenengo zibilizazioa Grekoa izan ziren, non, morroiek ozenki irakurtzen zizkieten testuak euren jabeei. Zenbait mende geroago, irakurmena ekintza isila eta pertsonala bihurtu zen, bakoitzak bere barrurantz irakurtzen zuelarik. Grekolatindarrek irakurmena egunero egin beharreko ekintzen artean kokatu zuten. Hala ere, Erromatarrek izan ziren “nulla dies sine linea” (egun bat ere ez lerro bat [irakurri] barik) esaldia asmatu zutenak. Hortaz, ondoriozta dezakegu hasiera hasieratik pertsonak kosziente zirela irakurtzeak daukan garrantziaz.

Ez da erreza zehaztea irakurzaletasunak eskola hurrei eskaini diezazkioken onurak; hala ere, adituek ondorengo onura hauek nabarmendu dituzte.

1.1.- Irakurketak area desberdinak aktibatzen ditu

Irakurmenak sistema bisuala aktibatzen du, bai hizkien idatzizko forman espezializatuta dauden erregio bisualak baita erregio bisual primarioak (informazio bisual guztia batzen dutenak) aktibatuz. Gainera, irakurmenak, hizketa sistema aktibatzen du soinuak identifikatu ahal izateko, eta hizketa sistemaren eta sistema bisualaren arteko erlazioa ahalbidetzen du, hau da, hizki idatzien eta soinuen arteko erlazioa.

Ume batek zerbait irakurtzen duen bakoitzean, ezkerreko hemisferioa abiadura handiarekin lan egiten hasten da, garun eta gorputz-area desberdinak aktibatzeko. Bere begiek testua gainbegiratzeko hizki bakoitza ezagutzen saiatuz eta bere kortex inferotenporala (hitz idatziak detektatzen dituen garunaren area) aktibatu egiten da informazioa garunaren beste area batzuetara transmititzeko. Prozesu konplexu hau etengabe errepikatzen da irakurtzen jarraitzen duen bitartean.

1.2.- Onura kognitiboak

Irakurtzen den bitartean, burmuina pentsatzera behartzen da, ideiak ordenatzera, kontzeptuak erlazionatzera, memoria aktibatzerara eta gauzak imajinatzerara; guzti horrek gaitasun intelektuala hobetzen du, neuronak suspertuz. Hortaz, irakurtzeak burmuina aktibatzen du, eta horrek konexio neuronalak hobetzen ditu, existitzen diren konexioak indartzuz eta konexio neuronal berriak sortuz.

Hori da hain zuzen Stanislas Dehaene neurologoak (2007) baieztatzen duena: "Irakurzaletasunaren burmuinetan materia gris gehiago eta neurona kopuru handiagoa dago irakurtzen ez duten pertsonen burmuinetan baino". Alexandre Castro-Caldas

neurozientzilariak eta Portugaleko Unibertsitate Katolikoko zientzilari taldeak ere gauza bera demostratu zuten egindako ikerketa batean (1998); horretaz gain, beste datu kurioso bat ere demostratu zuten: “irakurzaleen eta irakurtzen ez dakiten pertsonen burmuinak konparatuz, irakurtzen ez dakitenek txartoago entzuten dute”.

Neurologo eta psikologo askok irakurtzea aholkatzen gaixotasun neurodegeneratibo asko sahiesteko metodo gisa. Espainako Neurologia Sozietateko koordinatzailea den Pablo Martínez-Lage medikuak diotenaren arabera, “Euren bizitza osoan zehar mentalki aktiboak mantendu diren pertsonak arrisku gutxiago daukate alzheimerra, parkinsona edo gaixotasun kardiobaskularrak pairatzeko”.

1.2.1.- Kontzentrazioa hobetzen du

Azpimarragarria da aipatzea irakurtzea ekintza antinaturala dela. Emili Teixidor-ek (2005) defendatzen duen moduan, “Behin ikasi ostean, geure buruan jaiotzetiko prozesu bat bezala gertatzen dela dirudien arren, irakurtzea, geure naturaren aurka doan ekintza bat da”. Izan ere, irakurtzeko, inguruko distrazioak eta estimuluak alde batera utzi behar dira irakurketan zentratuta egoteko; eta adi ez egoteak, psikologia ebolutiboaren arabera, bizitza galtzea suposa lezake. Adibidez, ehiztari bat ez bazegoen inguruan gertatzen ari zenari adi, animalia batek jan lezake edo gosez hil liteke janaria aurkitzeko gai ez izateagatik. Horregatik, geldi eta gauza batean bakarrik pentsatzen egotea antinaturala da, eta arrazoi berdinegatik, kontzentrazioa hobetzen du, kanpoko estimuluaren aurka borrokatu behar dugulako gauza bakarrean pentsatzeko.

Nicholas Carr-ek (2011) dioten bezala “irakurmenak kontzentrazio handia exijitzen du, testuaren dekodifikazioa eta haren interpretazioaren konbinazioa eskatzen duelako”. Beraz, ume bat maiztasun gehiagorekin irakurtzen doan heinean, kontzentrazio gaitasuna hobetzen joango da eta horrek ahalbidetuko dio pixkanaka denboraldi luzeagoz irakurtzen egon ahal izatea. Era berean, irakurtzeko kontzentratzeko gai den heinean, beste gauza batzuetan kontzentratzeko gaitasun gehiago izango du.

1.2.2.- Sormena sustatzen du

Umeek irakurtzen duten bitartean, hitzak imajinatzen saiatzen dira; deskripzioak, lekuak, pertsonak, irudiak ... gauza zehatzetan eraldatuz. Gabilondok (2012) dioenez, hain da handia adimenaren poterea, non, imajinatutakoa birsortu egiten duen, ekintza benetan egingo balitz burumuinean aktibatuko liratekeen area berberak aktibatuz.

Fenomeno hau, Nicole K. Speer psikologoak (2009) egindako ikerketa batek demostratzen du. Haren esanetan “Irakurleek, narrazio batean aurkitzen duten egoera berri bakoitza mentalki simulatzen dute. Burmuinak prozesu hori, benetakoa balitz bezala bizitzen du (benetako egoera baten aurrean aktibatuko lituzken area berak aktibatuz) eta ondorioz, irakurritako egoerak iraganean bizitako egoerekin batera integratzen ditu irakurleak”.

1.3.- Psikologikoki dituen onurak

Irakurmenak baditu beste hainbat abantaila geure osasun eta ongizate mentalerako, hala nola, estres mailaren murrizketa. Victor Nell-ek (1988) gai honen inguruan egindako ikerketa klasiko baten arabera: “gozatuz irakurtzea, jolastea bezalakoa da”. Entretanimendu natural bat da, eta adituek diotenaren arabera, historio on batek mendekotasun neurologikoa sor dezake, dopamina eta serotonina (ongizatearekin erlazionatuta dauden hormonak) hormonen jarioa sortaraziz.

Irakurtzeak, ongizate animikoa sortzeaz gain, aiurria, emozioak edota izaera alda dezakeela defendatzen du Keith Oatley psikologo ingelesak (2006). Honek, 100 pertsonen ohiturak eta ohiturek egoera emozionalean zituzten eraginak aztertu ostean, honakoa ondorioztatu zuen: Maiztasunez irakurtzen duten pertsonen emozioak erraztasunez ulertzen dituzte eta haienak egiteko joera demostratzen dute, batzuek, modu egonkorrean.

1.4.- Sozialki dituen onurak

Adituek diotenaren arabera, irakurtzeak erlazio sozialak hobetzen ditu. Izan ere, irakurmenak, hitz egiteko gai desberdinak sor ditzake eta horrek interakzioa eta erlazio sozialak errazten ditu. Gainera, Estatu Batuetako Bufalo Unibertsitatean egindako ikerketa baten arabera, liburu mota bera gustatzeak talde sentimendua sustatzen du eta horrek autoestimuan eragiten du, izaki sozialak garenez, talde baten parte sentitzeko beharra daukagulako.

1.4.1.- Enpatia garatzen du

Irakurmenak hainbat gaitasun sozial hobetzen laguntzen du, adibidez enpatia. Irakurle batek berehala ikasten du irakurtzen dituen historietako pertsonaiekin identifikatzen eta Emili Teixidorrek (2005) defendatzen duen bezala “prestutasun gehiago erakusten du besteengana zabaltzeko eta gainontzekoen bizitzak ulertzen saiatzeko”. Raymond Mar psikologoak (2006) honakoa probatu zuen: Ipuinak edota nobelak irakurtzen dituzten pertsonak besteen egoeran jartzeko ahalmen handiagoa dutela irakurzaleak ez diren pertsonak baino.

1.4.2.- Komunikazio ahalmena hobetzen du

Irakurzaleek, hizkuntza hobeto erabiltzen dute eta seguruago sentitzen dira hitz egiten dutenean irakurtzen ez dutenak baino, ondorioz, gehiago hitz egin ohi dute eta zehaztasun handiagoz. Malva Villalón-ek (2008) informazio horri gehitzen dio gainontzeko pertsonak irakurzaleak lider potentzial moduan ikusteko joera dutela, euren hitz-jarioak transmititzen duen segurtasuna dela eta. Gainera, hobeto moldatzen dira lana bilatzerako orduan, gehiago irakurtzen duten pertsonak, gai gehiagori buruz hitz egin dezaketelako eta forma diskurtsibo desberdinak ezagutzen dituztelako, hortaz, gai dira instrukzioak ondo ulertzeko, elkarrizketa interesgarri bati bidea emateko, ikuspuntuak planteatzeko edota inizatiba hartzeko. Beraz, profesionalki, gehiago aintzat hartzen dituzte.

1.5.- Onura linguistikoak

Umeeek irakurmenaz gozatzen dutenean, trebetasun linguistiko gehienak eskuratzen dituzte nahi gabe eta ahalegin koszienterik egin gabe. Stephen D. Krashen-ek (2004) esaten duen bezala, “Irakurle egokiak bihurtuko dira, hiztegi zabala bereganatuko dute, ulermen gaitasuna garatuko dute, esaldi gramatikal konplexuak erabiltzen ikasiko dute eta idazmen estilo egokia garatuko dute”. Era berean, hizkuntza hobeto ezagutzen duten heinean, era egokian eta zehaztasunez hitz egiten ikasiko dute, hortaz, hizlari hobeak ere izateko aukera gehiago izango dituzte.

Gainera, hizkuntzaren erabilera menperatzea ezinbestekoa da gainontzeko gai guztiak ulertu ahal izateko. Malva Villalón-ek idazten duenez (2008) , “ez da existitzen hizkuntzatik at kokatzen den prozesu kognitiborik, izan ere, gainontzeko operazio eta ekintza guztiak, hizkuntzari esker egiten dira, honek, arlo guztiak gainditzen dituelako”. Horretaz aparte, irakurzaleek, hizkuntza hobeto erabiltzen dute eta seguruago sentitzen dira hitz egiten dutenean irakurtzen ez dutenak baino.

1.6.- Akademikoki dituen onurak

Irakurtzeak, eskola jarduera orokorra hobetzen du; alde batetik, liburuek, pertsoneri, kulturei, tradizioei, naturari ... buruz hitz egiten dutelako eta hortaz, irakurtzen duten umeeek horri buruz ikasten dutelako. Beste aldetik, maiztasunez irakurtzen duten umeeek atxikipen eta ulermen gaitasun handiagoa dute, eskolan hobeto moldatzea ahalbidetuz. Dawn Betts-ek (2008) egindako ikerketa batean honakoa ondorioztatu zuen: “harreman estua dago irakurtzeko gaitasuna eta etekin akademikoaren artean”.

Oxford-eko Unibertsitatean Mark Taylor psikologoak (2005) egindako ikerketa baten arabera, gozamenaz irakurtzeak etorkizunean lanean izango den arrakasta iragar dezake. Hau da, gaztetan irakurzalea den pertsonak aukera gehiago dauzka heldua denean lan arloan arrakasta izateko. Bi hamarkadetan zehar, 17.000 gazteren ohitura

eta ekintzak ikertu zituen, etorkizunean arrakasta iragar zezaketenak zeintzuk ziren zehazteko asmoz. Eskolaz kanpo egiten zituzten ekintzen artean, ez zen bat bera egon esanguratsua zen eragina zeukanik lanbide arrakasta iragartzeko, bakarrik irakurzaletasuna. Ikerketa horren arabera, gaztetan liburuak irakurtzea gustatzen zitzaien emakumeek %39-ko posibilitatea zeukaten gerentzia kargu batean egoteko, gaztetan irakurtzen ez zuten emakumeek ordea, %25-eko posibilitatea. Gizonezkoen kasuan, %58-ko posibilitatea zeukaten irakurzaleek eta %48-koa irakurtzen ez zutenek.

Ikerketa honek zerikusia dauka Christina Clark eta Kate Rumbold ikerlariak (2006) argitaratu zutenarekin, non ondorioztatu zuten irakurmenaz gozatzeak garrantzi handiagoa daukala hezkuntza arrakasta izateko haurren familien estatus sozioekonomikoak baino.

Beste ikerketa batzuek ondorioztatu dute irakurzaleek abstrakzioa edo kontzentrazioa bezalako gaitasunak garatuagoak dituztela, sormen eta gaitasun sortzaile handiagoa izan ohi dutela, hiztegi zabalagoa eta gaitasun lingustiko gehiago dauzkatela eta abar. Gainera, hobeto interpretatu ohi dituzte edukiak eta emozioak, inferentzia eta balorazio kritiko hobeak eginez.

1.7.- Onurez baliatzeko, gozatzea beharrezkoa da

Hala ere, esan beharra dago irakurmenak eskaintzen dituen abantailez baliatzeko, gozatuz irakurri behar dela. Egitan, irakurzaletasunak eskeintzen dituen onuraz hitz egiten duten ikerketa gehienek, irakurleak ekintza hori nahi duelako egiten duenaren ustean oinarriturik daude. Izan ere, ekintza libreki egiteak eta alde zuzeneko joera erlaxatuak lortzen du irakurtzeak eskain ditzakeen onura guztiak naturalki geureganatu ahal izatea. Soledad Concha-k (2009) adierazten du “gozamen faktoreak” irakurtzeko eta ulertzeko motibazioa gehitzen duela. Gauzak horrela, irakurtzean gehiago gozatzen duenak, gehiago irakurriko du, eta probetxu gehiago atera ahal izango dio irakurtzearen ariketari. Halaber, honela dio: “Gozatzeko irakurtzen duen

pertsona, adi dago eta ulertzeko nahia du, ulertu ahal izateko ezinbestekoa den faktorea, alegia".

Irakurtzera behartzean, ordea, guztiz kontrakoa gertatzen da. Malva Villalón-ek (2008) dio umeei froga bat egin behar dutenean, adibidez, estrategikoki egiten dutela, galderen erantzun soilak bilatuz, benetan ulertzen saiatu barik, horregatik, ez dute disfrutatzen, ez dituzte irakurtzearen onurak lortzen eta gainera aspertzen dira.

La Fuente fundazioak egindako ikerketa baten arabera (2010) umeei galdetzen dietenean irakurmenaz gutxien gustatzen zaiena zein den %41-ek "irakurtzera behartuta sentitzea" erantzuten dute eta %23-k "irakurri behar ditudan gaiak".

Zorionez, adituek diotenaren arabera, nahiz eta irakurzalea ez izan, edozein adin izanda has daiteke irakurtzearen ohitura hartuz eta, hortaz, irakurtzeak eskaintzen dituen onura guztietaz baliatuz. Are gehiago, ohitu arte egin beharreko ahalegina, gehiengoak uste duena baino gutxiago kostatzen dela diote.

Gainera, Mark Taylorrek (2005) egindako ikerketa batean planteatzen duen ondorio garrantzitsuenetarikoa bat da ez dela hain garrantzitsua irakurtzen den denbora. Haren esanetan, "Irakurtzeak sortarazten dituen efektuak ez dira aldatzen umeei irakurtzen duten kantitatearen arabera, antzekoak dira egunero irakurtzen duten umeen eta hilabetean gutxitan egiten dutenen artean". Desberdintasun bakarra existitzen da irakurtzen dutenen eta irakurtzen ez dutenen artean, hortaz, akademikoak ondorioztatzen du "berdin dio zenbat egiten duzun, egiten duzun bitartean", lehenago edo geroago arrakasta etorriko delako.

Ez dira gutxi irakurtzeak dakartzan onurak, baina zaila da batzuetan irakurzaleak diren pertsonak lortzea. Hori dela eta, gero eta gehiago dira irakurtzearen ekintza zailtzen dituzten faktoreak, irakurtzera sustatzeko erabil daitezkeen estrategiak eta abar ikertzen ari diren adituak eta horien lana oinarri gisa hartuz, eskola eta liburutegietan ekintza desberdinak egiten hasi dira irakurmena sustatze aldera.

Horri buruz arituko gara hurrengo atalean, Euskal Herri mailan egin den jarduera batetik hasita, Espainiar Estatu mailan arrakasta izaten ari den beste jarduera batekin jarraituz eta Nazioarte mailan eraginkorrak izaten ari direla frogatuta dauden jarduerekin bukatzeko.

2.- Irakurzaletasuna sustatzeko eraginkorrak diren ekintzak.

2.1.- Euskal Herri mailan: “Bularretik Mintzora”

2007. urtean Galtzagorri Elkarrekin sortutako egitasmo bat da, haur txikiei, gurasoei eta hezitzaileei zuzenduta dagoena. Haren xede nagusia 0-6 urte tarteko haurren irakurketa ohiturak sustatzea da haien inguru naturalean; etxean, eskolan eta liburutegian, alegia. Ideia nagusia da haurrei “irakurtzen ematea” jaten ematea bezain garrantzitsua dela. Iniziatiba hau haur literaturako ideazlea den Itziar Zubizarretak babesten du, gai honetan espezializatuta dagoen enpresa batekin batera.

Egitasmo hau duela urte batzuk hasi zen Euskal Herrian baina AEB-etan, Britainia Handian, Italian, Suedian eta Katalunian egindako antzeko egitasmoen ildo berean dago, non emaitza positiboak lortu dituzten. Proiektu honen ekimen guztiek haurren osasuna kontzeptu orokor eta integral gisa hartzen dute kontuan. Izan ere, frogatuta dago txikiaren osasunean literaturak eta irakurketa ozenak berebiziko garrantzia dutela, ipuin, abesti edota esku-jolasen bidez ... zuzenean konektatu baitaiteke haurren munduarekin eta beraien beldur eta sentimenduekin.

Helburuak lortzeko, “Bularretik Mintzora” kanpainaren baitan hainbat proposamen bideratzen dira eskola eta liburutegiaren bitartez: ikastaroak, hitzaldiak, gomendioak, formakuntza saioak, tailerrak, liburu aproposen zerrendak eta abar.

Egitasmoaren beste euskarrietako bat, liburuz betetako maleta batzuen erabilpena da, ekintzan parte hartzen duten liburutegietatik etxetara mailegu gisa eramateko. Horretarako baldintza bakarra, liburutegiko bazkide izatea da. Maleta

desberdinak daude adinaren arabera, hau da, 0-3 urte bitarteko mailetak eta 3-6 urte bitartekoak daude eta barruan aurki daitekeen materiala honakoa da: Galtzagorrik haur txikientzat hautatutako liburu aproposak, gurasoek haurrei irakurtzeko liburuak, Itziar Zubizarretak sortutako "Bularretik Mintzora" edo "Sasi guztien gainetik" izeneko liburu-diskoak eta gomendiozko foiletoak.

Horretaz gain, ikastetxea, etxea eta liburutegia lotzeko ekintza bat egiten dute, "Motxila Txikia" izenekoak. Parte hartzen duen eskolako gela bakoitzak motxila bat dauka. Astean behin, haur batek motxila hartzen du eta heldu baten laguntzaz liburutegiko liburu bat aukeratzen du. Liburua etxera eramanten du irakurtzeko eta hurrengo egunean gelara eramaten du bertan aste batez egon dadin. Astean zehar liburua lantzen dute eta hurrengo astean beste gelakide batek liburua liburutegira bueltatzen du eta beste bat aukeratzen du, aurreko ikasleak egindako prozesua errepikatuz.

Egitasmoa hasi zenetik datuak biltzeari ekin diote urtez urte gertatzen den eboluzioa kuantifikatzeko. Alde batetik egitasmoan parte hartzen duten herrien, eskolen, hezitzaile kopuruaren eta ikasleen zifrak apuntatzen dituzte. Beste aldetik, urtero galdetegiak pasatzen dizkiete guraso eta hezitzaileei egitasmoan parte hartu baino lehen eta parte hartu osteko desberdintasunak ikusteko.

Egitasmoa martxan jarri zenetik parte hartzen duten herrien, eskolen, hezitzaileen eta ikasleen kopuruak gora egin du nabarmenki. Hasieran, 5 herrik hartzen zuten parte, gaur egun 15-ek. Lehenengo urtean 16 ikastetxek parte hartu zuten, gaur egun 41-ek. Inplikatzaren diren hezitzaileen kopuruari dagokionez 116-tik 368-ra gora egin du. Parte hartzen duten umeen kopuruari begira, 2.200-tik 6.483-ra igo da. Egitasmoak izandako bilakaera eranskinetan agertzen diren grafikoetan ikus daiteke. *(ikus. 1. eranskina, 29 or.)*

Urtero gurasoei egiten dizkieten galdetegiaren emaitzek erakusten dutenaren arabera, badaude asko hobetu duten alderdi batzuk, hala nola, haur kantak abesteko maiztasuna edo haurrek harretari eusten dioten denbora. Beste alderdi batzuek nahiko

hobetu dute, adibidez, ipuinak kontatzeko maiztasuna, liburutegira joateko maiztasuna edo maileguen kopurua, iraupena eta motak. Eranskinetan, alderdi bakoitzaren hobekuntza kuantitatiboki ikus daiteke. (*ikus. 2. eranskina, 31 or.*)

2.2.- Estatu mailan:

2.2.1.- “Motxila edo maleta bidaiaria”

Ekintza hau, liburutegitxo bat ikasleen bizilekuan sartzean datza, irakurtzeko ohitura sustatzeko asmoz, ez bakarrik ikasleengan, baizik eta familia osoarengan. Helburu nagusiak honakoak dira:

- Familiak kontzientziaztea irakurzaletasunak euren seme-alabengan duen garrantziaz.
- Ikasleengan irakurtzeko ohituren garapena sustatzea.
- Liburu desberdinak ezagutaraztea (Ipuinak, fikziozko liburuak, fantastikoak, komikiak...) baita aldizkariak edo diskak ere.
- Familietan ere irakurtzeko ohituren garapena sustatzea eta euren seme-alabekin denbora konpartitzea irakurtzen duten bitartean.

“Motxila bidaiaria”-ren barruan mota askotariko materialak egoten dira, ikastetxearen eta ikasleen adinaren arabera apur bat alda daitezke baina orokorrean honako gauza hauek aurki daitezke: Haurrentzako ipuinak, mahai jolasak, gurasoentzako libururen bat, liburu zientifikoak, aldizkariak, olerki liburuak, filmeak, DVD-ak, musika klasikoko diskak...

Maletaren barruan, “Bitakora koaderno” bat dago, ikasleek eta familiek euren iritzia edo ekintza egiterakoan izandako esperientzia idatz dezaten. Horretaz gain, ekintza hobetzeko proposamenak edo liburuen gomendioak egin ditzakete.

Motxila, astelehenero ematen zaio ikasle bati eta honek etxera eramaten du hurrengo asteko astelehenera arte. Astelehen horretan beste ikasle batek eramaten du

motxila eta horrela prozesua errepikatzen doa azkenean gelako ikasle guztiek motxila etxera gutxienez behin eramaten duten arte. Behin motxila etxe guztietatik pasatu denean, ibilbidea berriro ere errepika dezake.

Materiala ez da beti berdina izaten, liburutegiko arduradunak nohizbehinka aldatzen du “Bitakora koaderno”-an agertzen diren familien iritzi edo gomendioen arabera. Familiak eta ikasleak gustura badaude eta arrakasta izaten ari dela badirudi, materiala ez da aldatzen. Gurasoen edo ikasleen iritzia oso positiboa ez bada, ordea, gauza desberdinak, orijinalagoak, zailagoak edo errezagoak sartzen saiatzen dira, irakurritako iritzien arabera.

Batzuetan gerta daiteke ekintzan parte hartzen duen edozein pertsona (ikasleak, neba-arrebak, gurasoak, aitona-amonak...) liburu bat irakurtzen hastea baina denbora eskasa dela eta, ez bukatzea. Kasu horretan, posible izango litzateke ikaslea liburutegira joatea eta mailegu gisa hartzea berak edo bere familiakideak liburu irakurtzen bukatu ahal izateko.

Ekintza Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan erabil daiteke. Duela hogeitun bat urte hasi zen atzerrian erabiltzen baina azkeneko bost urteetan indar handia hartzen ari da Espainian, izan ere, probintzia bakoitzean gutxienez ikastetxe eta institutu batean erabiltzen duten ekintza da.

Francisco de los Ríos Fernán Núñez ikastetxean (Kordoba) 2011-2012 ikasturtean ekintzari buruzko ebaluazio sakona egin zuten eta emaitzak oso baikorrak izan ziren. Eranskinetan, gurasoei egindako inkesta baten emaitzak, jardueran parte hartzen duten irakasle batzuen behaketak eta gurasoek “Bitakora Koaderno”-an idatzitako iritzi batzuk aurki daitezke. *(Ikus. 3. eranskina, 34 or.)*

Lehen Hezkuntzan ez ezik, Bigarren Hezkuntzan familiek eta ikasleek egindako balorazio pertsonalak ere oso positiboak dira. Eranskinetan, Valle de Pielagos institutuko (Kantabria) familien eta ikasleen balorazio batzuk ikus daitezke. *(Ikus 4. eranskina, 38 or.)*

2.3.- Nazioarte mailan

2.3.1.- “Solosalদি literario dialogikoak”

Duela hogei urte hasi ziren Venedako nagusientzako eskolan solasaldi dialogikoak egiten. Hasieran, helduentzako, gurasoen elkartean egiteko, emakume taldeetan edota hezkuntz eta kultur entitateetan egiteko zuzenduta zegoen ekintza kulturala zen, baina proiektuaren hazkuntza ikusita, eskoletan ere egiten hasi ziren.

Ramón Flecha, Bartzelonako unibertsitatean soziologian katedraduna eta gizarte zientzietan ikertzaile aditua dena, izan zen “Ikas Komunitateak” proiektuan “Solosalদি dialogikoak” uztartzeko ideia izan zuena. Baina bera ez da ekintza honen onura nabariak defendatzen dituen bakarra. Harvard University, University of Massachusetts, Victorian Centre of the Adult Literacy and Numeracy Australian Research Consortium (ALNARC), CREA (Centro Especial de investigación en Teorías y Prácticas Superadoras de Desigualdades Sociales) edo Bartzelonako Unibertsitateak interes berezia izan dute ekintza honekiko, gaur egun arrakasta duten irakurmen eta teoria sozial eta hezitzaileen multzoan kokatzen dutelarik.

Era berean, solasaldi dialogikoek nobel saria lortu zuen José Saramago, José Luis Sampedro idazlea edo José Antonio Labordeta kantautorea bezalako pertsonen onarpena daukate.

Berdintasunean oinarritutako solasaldiak dira. Partehartzaileek testu literario batean oinarrituta, gizarteari buruz hausnartu, eztabaidatu, argudioak eman eta euren esperientziak kontatzen dituzte. Horretarako, denon artean, irakurriko duten liburua adosten dute eta behin ikasle bakoitzak liburu bana duenean, ekintzarekin hasten dira. Etxean irakurriko duten orri kopurua adosten dute, adibidez, kapitulu bat, eta solasaldia egingo duten egunerako denek irakurrita ekarri behar dute horren inguruan hitz egin ahal izateko.

Ulertu ez duten parrafo edo hitzak azpimarratzea eta ahal badute hiztegian bilatzea eskatzen zaie eta horretaz gain, gehien edo gutxien gustatu zaien parrafo bat

aukeratzea. Horrela, parrafoa aukeratzekoan, esperientzia positibo edo negatiboekin lotzen dituzte eta horrek, haiek izandako bizipenak, parrafoari buruzko iritziak edo hori irakurtzerakoan sortarazi dizkieten sentimenduak konpartitzeko aukera ematen die.

Ekintza honen xede nagusiak honakoak dira besteak beste: Irakurzaletasuna bultzatzea, testuei buruzko hausnarketa eta ulermena bultzatzea, irakurketa norberaren eta taldearen bizipenekin lotzea, irakurketaren balioa eta erabilgarritasuna balioestea eta liburu klasikoek esparrua ikasle guztiengana hedatzea.

Helburu hauetaz gain, baditu zeharkako beste batzuk ere, hala nola, ulermena hobetzea, ahozko adierazpena garatzea, irakurketaz gozatzea, entzuteko ohiturak sortzea, autoestimua eta autokontzeptua sustatzea, izaera kritikoa eta solidarioa garatzea, ikasleen eta irakasleen arteko elkarrizketa hobetzea eta abar.

Solasaldi literarioak egiteko badaude arau minimo batzuk: besteen sexu, azaleko kolore, sinismen eta arraza errespetatzea, moderatzailea errespetatzea, besteentzat mingarriak izan daitezkeen hitzak ez erabiltzea eta besteak entzutea.

Jarduera aurrera eramanez ahal izateko, moderatzaile bat egotea ezinbestekoa da eta haren papera honakoa da: txanda eman, gutxien parte hartzen duten partaideak lehenetsi, inork bere ikuspuntua lehenestea eragotzi eta abar.

2012. urtean Lekeitioko eskola publikoko eta Karrantza Haraneko CEP Kontxako solasaldi dialogikoetan parte hartu duten ikasle, irakasle eta gurasoek esperientzia oso positiboa izan dela baieztatzen dute. Eranskinetan, jardueran parte hartu duten eragile guztien balorazio batzuk ikus daitezke. *(Ikus. 5. eranskina, 39 or.)*

“Solasaldi Dialogioak” egiterakoan behatu dutenaren arabera, irakasleek honakoa ondorioztatzen dute:

- Norberaren estimua handitzen da, ekarpen guztiek balio dutelako eta ikasle guztiek parte hartzen dutelako.

- Elkartasuna bultzatzen da, elkarri laguntzen baitiote.
- Irakurzaletasuna sustatzen da, normalean irakurriko ez lituzketen liburuak irakurtzen hasten direlako.
- Ahozko adierazpena eta irakurmena garatzen dira eta komunikazioari zentzua eta funtzionaltasuna ematen zaio.
- Hiztegia aurrerapenak egiten dituzte.
- Balioak lantzeko aukera ematen duen ekintza da eta bizikidetzak hobetzen da.
- Entzuteko gaitasuna handitzen da.
- Ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa hobetzen da.
- Jarrera kritikoa garatzen da.

2.3.2.- “Amama ipuin kontalariak”

Proiektu hau 2000. urtean sortu zen eta printzipio nagusia honakoa da: afektua + kalitatezko literatura = irakurtzeko eskakizunaren hazkuntza. Egitasmo honetan, aitite eta amamek (hasieran bakarrik amamek) astero liburuak irakurtzen dizkiote haur talde berdinari, euren erreferente afektibo bihurtzen direlarik. Liburuak ez dira edonola irakurtzen, baizik eta espazio zabal eta erlaxatuetan, eta ekintza liburuaren inguruan kokatzen da liburuari protagonismoa emateko eta horrela liburuaren balio sinbolikoa transmititzeko.

Egitasmo hau parte hartzailea eta integratzailea da eta belaunaldien arteko topaketa ahalbidetzen du. Gainera, pertsona ezgaituekin, umezurtegiak umeekin, nerabeekin, geriatrikoetan dauden aitona-amonekin, ospitaletan dauden hurrekin ... ere egin daiteke. Helburu nagusiak honakoak dira:

- Lehen haurtzaroan irakurtzearen tradizioa sustatzea.
- Irakurmena irakurtzen ez duten familietara hurbiltzea.
- Eskaintza kultural sistematiko bat eramatea hezkuntza sistemaren barruan.
- Nagusiei komunitatean rol bat ematea, horrela solidaritateaz gozaten ikas dezaten.
- Umeek irakurtzearen ohitura mantentzea komunitateko identitate bezala.
- Belaunaldien arteko topaketa espazio bat sortzea.

Hilabetero, batzar bat egiten duzte non, liburuak eta esperientziak trukutzen dituzten. Ebaluazioari dagokionez, hurrekin egiten duten topaketa bakoitzaren ostean kontrol fitxa bat betetzen dute. Gainera, sei hilabetero, zuzendari eta irakasleek beste galdeketa bat betetzen dute, non, hurrek irakurmenarekiko agertzen dituzten aldaketen erregistroa egiten duten.

Informazio guzti horrekin egitasmoari buruzko estatistikak egiten dira eta hobetu beharreko alderdiak hobetzeko neurriak hartzen dituzte ekintzaren etengabeko hobekuntza eginez.

Egitasmoa Hego Amerika osoan zehar hedatzen ari da, gero eta partaide gehiago dituelarik eta hainbat sari jaso ditu. Eranskinetan, proiektuak izandako hedapena eta jaso dituen sariak aurki daitezke. (*Ikus. 6. eranskina, 41 or.*)

Dena dela, ez dugu ahaztu behar agente sozializatsaile garrantzitsuena familia dela. “Análisis de la influencia de la familia en los hábitos lectores” Emilia Moreno Sanchez-ek honela dio: “Hurrek irakurmenarekiko duten jarrera, euren gurasoek irakurmenari ematen diote balioa, euren irakurketa ohituren eta eskura daukaten materialaren kalitatearen arabera izango da”. Beraz ez dauka zentzurik eskolatik irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak egitea gero familian irakurmenari garrantzirik ematen ez badiote. Beraz, familia irakurtzearen garrantziaz kosziente ez den heinean, ez du hori sustatuko eta askoz zailagoa izango da haur irakurzaleak lortzea. Horregatik, komenigarria izango litzateke lehendabizi irakurzaletasunak dakartzan onuraz familiak kontzientziazatzea eta gero, etxean euren seme-alabak irakurmenera bultzatzeko egin ditzaketen gauzak azaltzea.

3.- Metodologia eta lanaren garapena:

Lan hau, dokumentuetan oinarrituriko ikerketa bibliografiko sakon bat da, bigarren mailako iturrietatik ateratako informazioa biltzen duena; datu kualitatibo nahiz kuantitatiboak aurkezten dituelarik.

Hasieran, bilaketa bibliografiko bat eta ikastetxe bateko liburutegiari buruzko ikerketa bat egitea erabaki genuen, baina ikastetxeak ikerketa egiteko eskaini ziezagukeen informazioa oso eskasa zela ikusterakoan, lanaren planteamendua aldatu behar izan genuen eta ikerketa bibliografiko hutsa egingo genuela erabaki genuen, horretarako, paperezko informazio iturriak zein iturri digitalak erabili ditugularik.

4.- Emaitzak

Ikerketa honetako helburuetako bat, Euskal Herri mailan, Espainiar Estatu mailan eta Nazioarte mailan arrakasta izaten ari direla estatistikoki frogatuta dauden jarduerak ezagutzea zen, eta helburua betetzeaz gain, jardueren emaitzak oso positiboak direla esan daiteke. Horretarako onena, jarduera hauen emaitza kuantitatibo zein kualitatiboak aztertzea izango da.

“Bularretik Mintzora” egitasmoa sortu zenetik, proiektuan parte hartzen duten aldagai guztiek gora egin dute gutxienez %125-eko ehunekoan. Hasieran, 5 herri hartzen zuten parte, gaur egun 15-ek. Gainera, hasieran Gipuzkoako herri batzuek bakarrik hartu zuten parte eta egun, EAE-ko 3 herrialdeetako herriek parte hartzen dute. (*Ikus. 1. Irudia, 29 or.*) Lehenengo urtean 16 ikastetxek parte hartu zuten, gaur egun 41-ek. (*Ikus. 2. Irudia, 29 or.*) Inplikatzan diren hezitzaileen kopurua hirukoiztu da, 116 izatetik 368 izatera pasatu dira. (*Ikus. 3. Irudia, 30 or.*) Parte hartzen duten umeen kopuruari dagokionez, 2.200 izatetik 6.483 izatera pasatu da. (*Ikus. 4. Irudia, 30 or.*)

Partaidetzaz gain, gurasoek 2009-2011 ikasturteetan betetako galdetegiaren arabera, badaude nahiko hobetu diren alderdi batzuk, adibidez, ipuinak kontatzeko maiztasuna, liburutegira joateko maiztasuna edo maileguren kopurua eta motak.

Ipuinak kontatzeko maiztasunari dagokionez, batzuetan eta sarritan hurrei irakurtzen zieten familien kopuruak modu nabarmenean gora egin zuela erakusten dute emaitzek eta gainera, kurtso amaieran, gutxi bazen ere, familia guztiek zerbait

irakurtzen zieten haurrei. (*Ikus 5. Irudia, 31 or.*) Liburutegira joateko maiztasunari buruz, esan beharra dago inoiz joaten ez ziren familien kopurua ikaragarri murriztu zela; era berean, astean batzuetan, astean behin, hamabostean behin, hilean behin eta urtean gutxitan joaten ziren familien kopuruak gora egin zuen nabarmenki. (*Ikus 6. Irudia, 31 or.*) Maileguen iraupena eta mailegu motei dagokionez azpimarragarria da, edozein genero maileguan hartu zuten familien kopuruak ikaragarri egin zuela gora, ipuinen kasuan adibidez, 41 puntuko gorakada eginez. (*Ikus 7. Irudia, 32 or.*)

Badaude asko hobetu diren alderdiak ere, adibidez, haur kantik abesteko maiztasuna eta hurrek harretari eusten dioten denbora. Kurtso hasieran familien %33-ak kantatzen zieten haurrei eta kurtso amaieran %67 ziren haurrei kantatzen zieten familiak. (*Ikus 8. Irudia, 32 or.*) Hurrek harretari eusten zioten denborari buruz hobekuntza izugarria izan zela esan daiteke, izan ere, 10 minutuz harreta mantentzeko gai ziren hurren kopuruak 48 puntuko gorakada izan zuen. (*Ikus 9. Irudia, 33 or.*)

“Motxila Ibiltaria”-ren jaraduerak ere oso emaitza onak lortu zituen, Francisco de los Ríos Fernán Núñez ikastetxean (Kordoba) 2010-2011 urtean gurasoei egindako galdetegien emaitzek erakusten dutenaren arabera.

“Motxila ibiltari”-ak dituen baliabideen kantitateari buruz, % 90-ak nahikoa iruditzen zitzaiola esan zuen eta gainontzeko %10-ak gehiegi edo gutxiegi iruditzen zitzaiola. (*Ikus. 11 irudia, 34 or.*) Baliabideen kalitateari buruz, %50-ak ona zela erantzun zuen, %35-ak normala, %10-ak oso ona eta %5ak baxua. Beraz ikus dezakegu, %95-ak “Motxila Ibiltariaren” materialaren kalitatea normala eta oso ona bitartean kalifikatu zuela. (*Ikus. 12. Irudia, 34 or.*) “Motxila Ibiltari”-ak zekarren materialaren zailtasunari buruz galdetu zietenean, %80-ak normala zela, %15-ak erreza zela eta %5-ak zaila zela erantzun zuten. Hortaz, ondoriozta daiteke materialaren zailtasuna gehiengoaren maila kulturalarekin bat etortzen zela. (*Ikus. 13. Irudia, 35 or.*) Ekintzak zuen iraupenari buruz, % 72-ak ados zegoela erantzun zuen, hau da, denbora nahikoa iruditzen zitzaiola; %18-ak ordea, ados ez zegoela erantzun zuen, denbora gehiegi edo gutxiegi iruditzen zitzaiolako. (*Ikus. 14. Irudia, 35 or.*) Beste motxila bat jaso nahi izango luketen galderari, %87-ak baietz erantzun zuen, % 5-ak ezetz eta %3-

ak beharbada. Erantzun hauen bitartez ondoriozta dezakegu gehiengoari ekintza gustatu zitzaiola eta gozatu zuela bestela ez luke errepikatuko. *(Ikus. 15. irudia, 36 or.)* Ekintzak aurretik zehaztutako helburuak lortzen zituen ala ez galderari, %97-k baietz erantzun zuten eta %3-k helburu guztiak ez baina batzuk bete zituela erantzun zuten. *(Ikus. 16. Irudia, 36 or.)* Azpimarragarria da esatea inork ez zuela erantzun ekintza honek zehaztutako helburuak lortzen ez zituenik, hori ekintzak funtzionatzen duenaren seinale garbia da.

Inkestak egiteaz gain, ikastetxean, irakasle eta gurasoei jarduerari buruzko iritzia eman zezatela eskatu zitzairen eta erantzunak, oso baikorrak izan ziren. Irakasleek aitortu zuten hasieran hainbat arazoak izan zituztela, baina behin martxa hartu ostean, jarduerarekin pozik zeudela. *(Ikus. 3. eranskina, 37 or.)* Gurasoek, familiako partaide gehienek motxilako zerbait irakurri edo ikuskatu zutela esan zuten, eta jarduera erabilgarri eta entretenigarri moduan kalifikatu zuten. *(Ikus. 3 eranskina, 37 or.)*

Lehen Hezkuntzako balorazioak ez ezik, Valle de Pielagos institutuko familiek eta ikasleek egindako balorazioak ere positiboak izan dira. Kasu honetan, familia eta ikasleek interesgarri bezala kalifikatu dute ekintza, eta irakurzaletasuna eta familia erlazioa sustatzeko aproposa dela esan dute, besteak beste. *(Ikus. 4. eranskina, 38 or.)*

Solasaldi Dialogikoei buruz datu estatistikoak ez eduki arren, Lekeitioko eskola publikoan eta Karrantza Haraneko CEP Kontxan “Solosal-di Dialogiko”-etan parte hartzen duten eragile guztiek erantzundako balorazio estimatiboek ekintzarekiko balorazio positiboak agertzen dituzte.

Bi zentru hauetako ikasleek “Solosal-di Dialogiko”-ak gustatzen zaizkiela, mundialak direla edo ikastetxean egindako jarduerarik onena izan dela esan dute, beste balorazio batzuekin batera. *(Ikus. 5. eranskina, 39 or.)*

Irakasleek onartu dute hasieran jarduerarekiko mesfidati zeudela, baina gero, sinestezina, motibagarria eta gomendagarria bezalako adjektiboekin definitu dute. *(Ikus. 5. eranskina, 39 or.)*

Gurasoak ere jarduerarekiko baikor agertu dira. Ama batek aitortu du urteak daramatzala irakurmena bere semearengan sustatu nahiean eta berak lortu ez duena “Solosal-di Dialogiko”-ek lortu dutela. (*Ikus. 5. eranskina, 39 or.*)

“Amama Ipuinkontalariak” proiektuari buruz jasotako emaitzak ere oso baikorrak izan dira. Egitasmoa 2001. urtean martxan jarri zenetik, parte hartzen duten eragile guztien kopurua etengabe hazi da. Hasieran, 6 boluntario besterik ez zeuden eta gaur egun 2.000 baino gehiago. Lehenengo urtean, hiri batean baino ez zen gauzatzen eta egun 60 hiritan. Hasieran, 2.350 umek hartu zuten parte egitasmoan eta gaur egun, 600 mila ume dira parte hartzaileak. Proiektuak izandako hedapena eranskinetan agertzen diren mapetan ikus daiteke (*Ikus. 17-18 irudiak, 42 or.*)

Azpimarragarria da esatea proiektu honek sei sari jaso dituela, urte gutxitan izandako bilakaerari eta gizartean eragindako mugimenduari esker. Sariak eta sariak ematearen zergatia eranskinetan ikus daiteke. (*Ikus. 6. eranskina, 41 or.*)

Gainera, 2001. urtetik irakurtzen jarraitzen duten amamek umeengan honako eboluzioak ikusten dituztela baieztatzen dute:

- Haurrek euren etxeetan (familiarekin batera edo bakarka) egindako irakurketak komentatzen dituzte.
- Autore eta bildumekiko trebantzia adierazten dute. “Liburuei buruz” hitz egiteko gai dira.
- Boluntarioek gero eta zailagoak diren liburuak irakur ditzakete, abstrakzio maila altuagoa eta hiztegi jasoagoa dituztenak, alegia. Gainera, irakurketa forma berriak ere erabiltzen has daitezke programak aurrera joan ahala, hala nola, olerkiak, kapituloka irakurtzen dituzten nobelak, antzerkiak edota hibridoak.
- Liburutegiaren erabilera areagotzen da programak aurrera egin ahala.

Datuek agertzen duten moduan, emaitzak guztiak oso baikorrak izan direla ondoriozta daiteke.

5.- Ondorioak

Ikerketa honi esker, Euskal Herri mailan, Espainiar Estatu mailan eta Nazioarte mailan arrakasta izaten ari direla frogatuta dauden ekintzak ezagutzeaz gain, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan ere erabil daitezkeen ekintza batzuk ezagutzea lortu dugu, baita irakurtzeak eskola haurrari ekar diezazkiokeen onurak zeintzuk diren jakitea ere.

Lanean zehar ikusi ahal izan dugun moduan, irakurzaletasunak onura asko ekar diezazkioke eskola haurrari: Gorputzeko area desberdinak aktibatzen ditu, konexio neuronalak indartzen ditu, kontzentrazioa hobetzen du, sormena sustatzen du, estres maila murrizten du, enpatia garatzen du, komunikazio ahalmena hobetzen du, trebetasun linguistikoak hobetzen ditu, eskola jarduera orokorra hobetzen du eta abar.

Emaitza onak lortutako ekintzei buruz aipatu behar dugu orokorrean oso egokiak iruditzen zaizkigula ondo egituratuta daudelako, irakurmena ez ezik beste hainbat arlo lantzen dituztelako eta batez ere funtzionatzen dutela frogatuta dagoelako. Hala ere, “Bularretik Mintzora” egitasmoak konkretuki muga garrantzitsu bat duela iruditzen zaigu, izan ere, argitalpen gehienak euskeraz daude eta ondorioz, erdaldunak diren gurasoek ezin dituzte erabili.

Ikerketa hau egiterakoan, hasieran zehaztutako helburuak betetzeaz gain beste gauza batzuetaz ere konturatu gara, hala nola, jendeak ekintza asko egiten dituela irakurmena sustatzeko, baina oso gutxik jasotzen dituzte ekintzen emaitzen datuak eta gure ustez komenigarria izango litzateke datuak biltzea, ekintzak funtzionatzen duen ala ez objektibotasunez frogatzeko modu bakarra delako.

Irakurzaletasunari buruzko zifrak nahiko larriak diren arren, ikerketa hau egiterako prozesuan ikusi ahal izan dugunaren arabera, uste dugu jendea gero eta kontzientziatuago dagoela irakurmenaren garrantziaz, eta hori da lehenengo pausua gaur egungo egoera hobetu ahal izateko.

6.- Erreferentzia bibliografikoak:

- Argote, P. & Molina, A. (2010). Familia y escuela: Su influencia en la formación para lectores del mañana. Chile: Fundación La Fuente.
- Betts, D. (2008). Exploring the Relationship between Language Skills, Reading Levels, and Ohio Graduation Test Performance in High School Students. Ohio: University of Cincinnati.
- Carr N. (2011). Superficiales ¿Qué está haciendo Internet con nuestras mentes? Madrid: Taurus.
- Castro-Caldas, A.; K. M. Petersson; A. Reis & others (1998): The Illiterate Brain: Learning to Read and Write During Childhood Influences the Functional Organization of the Adult Brain.
- Clark, C. & Rumbold, K. (2006). *Reading for pleasure: A research overviewed*. United Kingdom: National Literacy Trust.
- Concha, S. (2009). Currículum de lenguaje y comunicación: Génesis, implementación y representaciones en el colectivo del sistema educacional chileno. Chile: Universidad Diego Portales.
- Dehaene, S. (2007). *Les neurones de la lecture*. Paris: Odile Jacob.
- Flecha, R. (1997): Compartiendo palabras. Barcelona: Paidós.
- Fundación Germán Sánchez Ruipérez. (2007). Lectura y Familia. Salamanca: Junta de Castilla y León.
- Fundación Mempo Giardinelli (2001). El fomento de la lectura en espacios alternativos, una experiencia exitosa en el Chaco Argentino. 2014-05-17an hemendik aterata: <http://www.eclac.cl/ddds/innovacionsocial/e/proyectos/ar/abuelas.pdf>
- Gabilondo A. (2012). *Darse a la lectura*. RBA Libros
- González, J. (2010). Análisis del andamiaje en un proceso de lectura conjunta. México: Universidad de Guanajuato.
- Oatley K; Keltner D. & Jenkins J (2006). *Understanding emotions, Second edition*. Malden, MA, and Oxford, UK: Blackwell.
- Krashen, S. (2004). The power of reading: Insights from the research. Portsmouth, NH: Heinemann.
- López-Escribano, C. (2009). Aportaciones de la neurociencia al aprendizaje y tratamiento educativo de la lectura. Madrid: Universidad Complutense de Madrid.
- Maldonado, Z. & Guerrero, D. (2008). La Mochila Mágica. Programa de Promoción de Lectura para la Educación Inicial. Caracas: Universidad Pedagógica Experimental Libertador.
- Moreno, E. (2001). Análisis de la influencia de las familias en los hábitos lectores de sus hijas e hijos: un estudio etnográfico. Huelva: Universidad de Huelva.
- Nell V. (1988). Lost in a book: The psychology of reading for pleasure. New Haven, CT: Yale University Press.

- Petit, M. (2011). Leer y hacer uso de una biblioteca escolar: ¿y eso, para qué sirve hoy en día? Asturias: Universidad de Oviedo.
- Raymond A; Oathley K. & Petersen J. (2006). Exploring the link between reading fiction and empathy: Ruling out individual differences and examining outcomes. *Journal of Research in Personality*.
- Servén, C. (2012). María Luz Morales y la promoción de la lectura infantil. Madrid: Universidad Autónoma de Madrid.
- Speer N. (2009). Reading Stories Activates Neural Representations of Visual and Motor Experiences. *Psychological Science*.
- Taylor, M. (2005). The Impact of Reading on Career Prospects. *Books for Keeps*. 2014-05-31an hartua hemendik:
<http://booksforkeeps.co.uk/articles/the-impact-of-reading-on-career-propects>.
- Teixidor, E. (2005). Estrategias del deseo o trucos para leer. Barcelona: *La Vanguardia*.
- Villalón M. (2008). Alfabetización inicial: Claves de acceso a la lectura y escritura desde los primeros meses de vida. Ediciones Universidad Católica de Chile.
- Zubizarreta, I. (2008) Bularretik Mintzora: Poemak, kantak eta ipuinak. Galtzagorri Elkarte.


ERANSKINAK

1.- ERANSKINA: “Bularretik Mintzora” proiektuaren bilakaera.


Jarraian, egitasmoa sortu zen ikasturtetik (2008-2009) ikasturte honetara arte (2013-2014) izan duen bilakaera ikus daiteke.




1. Irudia. Egitasmoan inplikaturako herrien kopurua



2. Irudia. Egitasmoan inplikaturako ikastetxeen kopurua




3. Irudia: Egitasmoan inplikaturako irakasleen kopurua




4. Irudia: Egitasmoan inplikaturako haurren kopurua

2.- ERANSKINA: “Bularretik Mintzora” proiektuaren ikestak.


Egitasmoa ebaluatzeko, gurasoei bi galdetegi pasatzen dizkiete urtero, bat kurtso hasieran eta bestea amaieran, kurtsoan zehar aldatutakoa ikusteko. Honako hau, gurasoei 2009-2011. urteetan egindako inkestetan lortutako ondorioak dira.




5. Irudia: Ipuinak kontatzeko maiztasuna




6. Irudia: Liburutegira joaten diren maiztasuna




7. Irudia: Maileguen iraupena eta mailegu motak



8. Irudia: Haur kantak abesten dizkiete



9. Irudia: Haurrak harretari eusten dion denbora.



10. Irudia: Ingurune baldintzen kontrolari buruz

3.- ERANSKINA: Motxila ibiltariari buruzko ebaluazioa.

Francisco de los Ríos Fernán Núñez ikastetxean (Kordoba) lau urte daramatzate “Motxila Ibiltaria”-ren ekintza egiten. Ekintza ebaluatzeko, hiru alderdi kontuan hartzen dituzte: Familiei egindako galdetegia, irakasleek behaketa jarraieren bidez lortutako datuak eta ikasle eta gurasoen komentarioak. Jarraian, 2011-2012. Urtean familiei pasatutako inkesten bitartez lortutako balorazio kuantitatiboa ikus daiteke.



11. Irudia. Motxila ibiltariak dituen baliabideen kantitateari buruz



12. Irudia. Motxila ibiltariko materialen kalitateari buruz



13. Irudia. Motxila ibiltariak dituen materialen zailtasunari buruz



14. Irudia. Motxila ibiltarian etxean igarotzen duen denborari buruz



15. Irudia. Beste motxila bat jasotzeari buruz



16. Irudia. Helburua bete denaren ustea

Lehenago aipatu den bezala, ebaluazioa egiteko galdetegiak ez ezik irakasleek urtean zehar egindako behaketa jarraia ere kontuan hartzen dute. Segituan, "Motxila Ibiltaria"-ren ekintzan parte hartu zuten irakasleek 2010-2011 ikasturtean behaketaren bitartez egindako ebaluazio subjektiboa ikus daiteke:

Desberdintasun nabariak existitzen dira ikasleen artean, batzuk ia borrokatzen dira motxilak etxera eramateko eta beste batzuek ez dituzte eraman nahi. Beharrezkoa da erantzun honen zergatia zein izan daitekeen ikertzea (familia arazoak, irakurketarekiko gaitzespena...)

Lorpen garrantzitsuenetako bat da liburutegia eta familiak harreman zuzenean jartzea, hala nola, irakurmena euren inguru naturalean aurkeztea, etxean alegia.

Ekintza konplexua da eta arazo batzuei aurre egin behar izan diegu, hala ere, esperientzia positiboa izan da eta hobetzear dauden gauzak hobetzen saiatuko gara.

Horretaz gain, gurasoek eta hurrek bai "Bitakora Koadernoan" bai blogean idazten dituzten komentarioak kontuan hartzen dituzte. Hau da, erantzun libreen eta balorazio estimatiboaren ondoriozko ebaluazio kualitatiboa erabiltzen dute. Honako hauek, 2010-2011 ikasturtean blogean idatzi zituzten komentarioetako batzuk dira:

"Entretengarria izan da eta pelikulak elkarrekin ikusi ditugu" (3. mailako ikasle baten ama).

"Nobedadea zenez, kuxkuxeatzera bultzatu gaitu" (1. mailako ikasle baten ama).

"Etxera heltzeagatik bakarrik, motxila ibiltaria erabilgarria suertatzen da" (6. mailako ikasle baten aita).

"Nire sei urteko anaiari izugarri gustatu zaizkio dinosaurioei buruzko liburuak eta aldizkariak" (5. mailako ikasle bat).

"Aitak dokumental bat ikusi du, hurrek aldizkariak irakurri eta musika klasikoa entzun dute eta nik liburu bat irakurri dut" (4. mailako ikasle baten ama).

4.- ERANSKINA: “Motxila Ibiltaria”-riari buruzko balorazioak.

Ekintza hau, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzan egin daiteke. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu Lehen Hezkuntzako esperientziak ez ezik Bigarren Hezkuntzakoak ere aipatzea. Honako hau, Valle de Pielagos institutuko “Pepe Hierro” liburutegiko (Kantabria) DBH-ko lehenengo mailako familien eta ikasleen balorazio esanguratsuenak dira.

“Motxila Bidaiariaren lehendabiziko balorazioa oso ona da. Oso ekintza interesgarria iruditu zaigu geure seme-alabekin egin ahal izateko. Gainera, aintzina irakurtzen genituen komikiak eurekin batera gogorarazteko balio izan digu eta ez irakurtzearen ondorioz galdu ditugun liburuei buruz damutzeko astia ere izan dugu. Nire proposamena motxila denbora luzeagoz eduki ahal izatea da”.

“Oso material interesgarria iruditu zait eta askotariko gaiak lantzen dituen. Momentu atseginak pasatu ditugu elkarrekin zenbait artikulu komentatuz, olerkiak irakurriz eta komiki tailerrean jolastuz. Zorionak ekintza prestatu duzuenoi eta gustatuko litzaziguke gutxienez hilabetean behin egingo bazenute”.

“Nire familiari eta niri oso ekintza ona iruditu zaigu familien irakurzaletasuna eta familiaren arteko erlazioa sustatzen dituelako. Telebista ikusteari utzi diogu sarritan irakurmenari esker. Materialen aniztasuna oso egokia iruditu zait mota guztietako eta adin desberdinetarako liburuak, aldizkariak eta cd-ak zeudelako”.

“Motxila ibiltaria egitearen ideiak luzez iraun dezala eta guk era egokian aprobeitza dezagula. Eskerrik asko”.

“Motxila bidaiaria asko gutatu zait, gainera bilduma osoa irakurtzeko falta zitzaidan liburu bakarra zekarren eta asko poztu naiz ikustean. Ekintza hau gustuko dut niri bezala irakurtzea gustatzen ez zaigun umeei aniztasun asko eskaintzen digulako gustatzen zaigun zerbait aurkitu ahal izateko. Orain badakit zein motatako liburuak gustatzen zaizkidan eta hemendik aurrera gehiago irakurtzen hasiko naiz”.

5.- ERANSKINA: “Solosal-di Dialogiko”-etako balorazioa.

Eranskin honetan, Lekeitioko eskola publikoko eta Karrantza Haraneko CEP Kontxako “Solosal-di Dialogiko”-etan parte hartzen duten ikasleen, irakasleen eta familien iritziak agertzen dira.

➤ **Ikasleen iritzia:**

“Tertuliak mundialak dira, “nagusiek” izan ohi dituzten eztabaidak irteten direlako, eta baita oso gai garrantzitsuez hitz egiten dugulako ere: maitasuna, erlijioa, gure sentimenduak eta besteenak...” (A., 10 urte)

“Tertuliak gustuko ditugu, ikasteko modu berri bat delako, eta gure artean berba eginez eta eztabaidatuz ikasten dugulako. Batzuetan liburua gure bizitzan gertatutakoarekin konparatzen dugu, eta hori gustatu egiten zaigu” (J., 8 urte)

“Gauza bat ez dakigunean, galdetu egiten dugu, eta, horrela, guztion artean komentatzen dugu” (Y., 9 urte)

“Ni lehen oso lotsatia nintzen eta jendaurrean irakurtzean oso urduri jartzen nintzen. Tertuliei esker entzuten ikasi dut, ausartiagoa izaten etabesteen iritziak errespetatzen” (B., 11 urte)

“Niri gustatzen zait ematen duzun neurrian jaso egiten duzulako” (Z., 11 urte)

“Oso polita iruditzen zait solasaldietan egiten duguna eta nahi nuke ume guztiek horrelako gauzak egitea” (O., 9 urte)

“Pilo bat gustatu zitzaidan oso interesgarria delako, gainera zure iritzia eman ahal duzu eta besteenak entzun arazo barik” (U., 11 urte)

“Ikastetxe honetan egin dudan gauzarik onena da. Bakoitzak pentsatzen zuena esaten zuten lasai-lasai inor molestatu gabe, askatasun osoz” (M., 12 urte)

➤ Irakasleen iritziak:

“Hasiera batean, mesfidati geunden: ez genekien lanak gure ikasleak motibatzeke modukoak izango ziren ala ez. Baina gure beldurrak besterik ez ziren. Seguruenik guk geuk izan genuen esperientzia ezkorragatik...” (J., 2. mailako tutorea).

“Sinestezina. Ez nuen irudikatzen tertulia-euskarri horretan klasikoen irakurketak izan zezakeen aberastasuna. Egia da liburuak ondo aukeratu behar direla, eta euskaraz ez dago aukera zabalik, baina, bi edo hiru hizkuntza erabiliz gero, ez dago arazo handirik. Horrez gain, azpimarratzekoa da, baita ere, irakasleok gure ikasleekin batera ikasten dugula, guztion arteko elkarrekintzan. (B., 6. mailako tutorea).

“Ez nuen uste horrelako ekintza batek horrenbesteko jokia eskain zezakeenik. Irakurtzera motibatuak daude, solasaldia egiteko irrikitan daude eta batzuetan oso gai hunkigarriak agertzen dira. Talde terapia antzeko bat da, non bakoitzak ahal duena eskaintzen duen eta batzuetan negar egitera iritsi dira. Dударik gabe gomendatzen dudana ekintza bat da eta hasieran martxa hartzea apur bat kostatzen den arren, merezi du”. (E., 4. mailako tutorea).

➤ Etxekoen iritzia:

“Eskolan klasikoak irakurriko zirela jakin genuenean, pixka bat beldurtu egin ginen, gaur egun ez baitira horrelako liburuak irakurtzen... Baina ideiarekin bat egin genuen, eta gustura hartu genuen”. (P., 5. mailako guraso bat).

“Klasikoen proiektua dela-eta, etxean elkarrekin irakurtzen hasi gara. Oso kurioa da, txikitan guk geuk irakurritako liburuak baitira... Baina orain beste modu batera irakurtzen dituzte. Agian, modu horretan, seme-alabek gehiago ikasten dute, irakurketak beste zentzu bat hartzen duelako. (J., 3. mailako guraso bat).

“Sineztezina benetan, nik urteetan lortu ez dudana (nire semeak irakurtzea) solasaldi literarioen ekintzak lortu du. Zorionak benetan ekintza honen atzean dauden profesional guztiei”. (B., 4. mailako guraso bat).

6.- ERANSKINA: “Amama Ipuinkontalariak” proiektuaren bilakaera.

Eranskin honetan, “Amama Ipuinkontalariak” egitasmoak lortu dituen sariak eta proiektuak izan duen hedapena aurki daitezke.

➤ Egitasmoak jaso dituen sariak:

Premios Calificación Best Practice 2004 y 2006. Otorgada por Naciones Unidas-Fundación Hábitat y la Municipalidad de Dubai (Emiratos Árabes Unidos).

Premio ENTRE A UN MUNDO SIN LIMITES, en 2005. Del Plan Iberoamericano de Lectura —ILÍMITA— de la Organización de Estados Iberoamericanos (OEI), CERLALC (Centro Regional para el Fomento del Libro en América Latina y el Caribe) y la Cámara Colombiana del Libro, por Mejor Programa de Fomento a la Lectura en espacios alternativos.

Premio MEDELLÍN 2005 a la calidad, potencial de transferencia y contribución a mejorar la vida de la población. Otorgado por las Naciones Unidas, la Fundación Hábitat Colombia, el Foro Iberoamericano sobre Mejores Prácticas y la Municipalidad de Medellín.


Premio Harmony 2006 de la UNESCO como Best Cultural Practice.

Premio Mujer 2006 del Rotary Club Resistencia a las voluntarias de la ciudad por su compromiso social.

Premio Pregonero 2006, para difusores de la literatura infantil y juvenil argentina. Otorgado por la Fundación El Libro en el marco de la última Feria del Libro Infantil y Juvenil en Buenos Aires.

Distinción al Mérito 2006 de la Sociedad Argentina de Pediatría por la contribución al bienestar de los niños argentinos.

➤ Proiektuetan parte hartzen duten herrialdeen hedapena:



17. Irudia. 2001. urtean proiektuan parte hartzen zuten herrialdeak.



18. Irudia: 2010. urtean proiektuan parte hartzen zuten herrialdeak.